

IV "EMAKUMEZKO DONOSTIA HIRIA" XAKE TXAPELKETA

Xake txapelketa Donostiako Emakumeen Etxean. Jokatzeko erritmoa: partida azkarrak, 10 minutu. Inskripzioa doanik, adin guztietako emakumeei irekita, federatuak zein federatu gabeak. Hamaiketako izango dugu.

Ordua: 10:00

Izena emateko: 943483470 (whatsapp: 688 614 040) azaroaren 2 arte.

Informazio gehiago: info@donostiakoemakumeenetxea.com

BEGIRADA FEMINISTAK NIKARAGUAKO ERREBOLTARI

Nikaraguako Estatuaren jarrera errepresiboari buruzko solasaldia, begirada feminista batetik eta emakumeen eskubideen defentsan.

Ordua: 19:00 - 21:00

Hizlariak: Nikaraguako gazte feministak

Antolatzailea: Plazandreak, Txixibitxiak Talde Feminista, Donostiako Emakumeen Etxea Elkarte

NIK SINISTEN DIZUT: EMAKUME TORTURATUEN EGIA

Sarrera: Tortura eta generoa.

Ordua: 19:00

Hizlaria: Laura Pego, abokatu eta Kriminologiaren Euskal Institutuan ikertzailea

Parte hartzaileak: Miren Azkarate Badiola, Leire Gallastegi Ormazabal, Kristina Gete Etxeberria

Aurkezlea: Nekane Altzelai

Antolatzaileak: Antxeta Irratia eta Foro Sozial Iraunkorra

VII. JARDUNALDIAK EMAKUMEEK EGINDAKO ZINEMAZ

Jane Campion zinegilearen hiru pelikula proiektatuko dira Donostiako Antzoki Zaharrran



Astelehena 12 "Aingeru bat nire mahian" (1990)

Asteartea 13 "Pianoa" (1993)

Asteazkena 14 "Haragi bizian" (2003)

Ordua: 19:00

Tokia: Antzoki Zaharra

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte
Sustatzaileak: Donostiako Udalaren Berdintasun atala, Gipuzkoako Diputazioaren Berdintasun Zuzendaritza eta Donostia Kultura

ERDITZEA GUREA DA

Hainbat gaien inguruan hitz egingo da, haurdunaldi, erditze eta erdiendoa; erditzerakoan jasotzen dugun asistentzia mota. OMS ematen dituen gomendioak, osasun erabiltzaile garen heinean ditugun eskubide eta betebeharrak; haur jaioberriaren eskubideak... zalantzak eta esperientziak elkarbanatuko ditugu.

Ordua: 17:00 - 19:00

Informazio gehiago: www.elpartoesnuestro.es

donostia@elpartoesnuestro.es



FEMINIZIDIOAK AMERIKA LATINOAN DUEN INPAKTUARI BURUZKO SOLASALDIA

Emakumeek Latinoamerikan jasaten duten bortxakeriaz hausnartu nahi dugu, baita hango feminizidioei buruz nazioarteko komunitatea jabetuarazi ere. Colonbiako Indarkeriak Desargerarazteko Mahaia, feminizidioak ikusarazi eta jarraitzeko tresna, ezagutzera ematea ardatz nagusia edukiko dugu solasaldian.

Ordua: 17:00 - 21:00

Hizlariak: Emma Doris Lopez Rodriguez Dr. eta Lucy Polo

Solasaldiaren koordinatzailea: Cristina Ubani Bazan

Antolatzaileak: Haurralde Fundazioa eta Por ti mujer elkarte

DANBORRADA, TOPAKETA IREKIA

Ordua: 11:00 - 13:00

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

ASKAPENA: Brigada feministak

Askapenak Mexikon egindako brigada feministen berri emango dute. Elkartasuna eta feminismoa uztartzen dituen proiektu internazionalista.

Ordua: 18:30

Antolatzailea: Askapena

GENERO ETA KULTURA MILITARRA. BIZITZAK, GORPUTZAK ETA GIZARTE KONTROLA GUDAPEAN

Europa eta Mendebaldea militarizatzen ari dira eta defentsarako aurrekontua handitzen dute, eskuin-muturraren goraldian. Mundua gero eta bortitzagoa da, gudaren eta bakearen muga lausotzen den bitartean. Militarizazioaren fenomenoak ez ditu guda gauzatzen den kaleak bakarrik eragiten, gure diskurtsoetan, adimenetan, bizitzetan eta gorputzetan ere eragiten du. Eta desberdinarekiko daukagun beldurraz, ziurtasun-gabeziak elikatzen da eta baita matxismoaz eta patriarkatuaz ere, iraunarazteko xedearekin. Gudaz, indarkeriaz, bakeaz eta generoaz hitz egingo dugu. Halaber, zergatik emakumeen eskubideak dauden zalantzan XXI. mendean eta European bertan, Estatu gogorraren eta tradizionalaren izenean.

Ordua: 19:00 - 21:00

Dinamizatzailea: Nora Miralles Crespo

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

DOKUMENTALA Osteguna 29

“FABRICANDO MUJERES” Dokumentalaren aurkezpena

Kontsumoan indarkeria matxistak naturalizatuta eta barneratuta daude eta normalizat jotzen dira gure gizartean. Lan hau kontsumo arduratsuan lan egiten duten erakundeek eta erakunde feministen artean ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektibo baten emaitza izan da. Horrela “Fabricando Mujeres” dokumentalarekin ikerketa honen hausnarketak eta emaitzak pantaila handira eramatea nahi izan dugu.

Ordua: 19:00

Hizkuntza: Dokumentala hainbat hizkuntzetan grabatua dago, gehiena hala ere gaztelaniaz. Euskerazko azpititulua jarriko dira.

Antolatzailea: Setem Hego Haizea

